

Erdiko goi ebakortza

Ebakortzen ezaugarri orokor nagusia ebakitze-ertzaren zorrozatasuna da, ebakitzeko gaitasuna ematen duen egitura alegia. Erdiko goi ebakortza aurreko hortzaginik zabalena da hurbil-urrun ardatzean.

Batez besteko neurriak (ezpain-aldean neurtuta)¹:

Altuera osoa: 22 mm

Koroaren altuera: 10 mm

Erroen luzera: 12 mm

Koroaren zabalera hurbil-urrun ardatzean: 9 mm

Koroaren zabalera mihi-ezpain ardatzean: 7 mm

KEI²: 1,2


Ezpain-aldeko ikuspegia

Ezpain-aurpegia zapal samarra izaten da, doi bat ganbila bada ere. Silueta hurbila apur bat ganbila da eta **ukigune hurbila** ebakitze-herenean kokatuta dago. Hortz-uztai bereko erdiko goi ebakortz bien ukigune hurbilek elkar ukitzen dute. Silueta urruna berriz ganbilagoa da, eta batzuetan nabarmenki ganbilagoa izan ere. **Ukigune urruna** ebakitze-ertzetik aldenduago dago, ebakitze-herenaren eta erdiko herenaren arteko elkargunean gutxi gora behera. Ebakitze-ertzaren silueta zapala da eta 8-9 milimetroko zabalera izaten du gutxi gorabehera. Koroak 10-11 mm inguru ditu altueran, eta idun-lerroaren aldamenen ebakitze-aldean baino 1,5-2 milimetro estuagoa izaten da hurbil-urrun ardatzean. **Angelu ebakitze-urruna** biribilduagoa izaten da **angelu ebakitze-hurbila** baino, eta honen ondorioz alde hurbilak itxura luzeagoa izaten du alde urrunak baino. Ezaugarri hau nabarmena da goi ebakortzetan eta apur bat gutxiago behe ebakortzetan.

Idun-lerroa uztaituta dago erro-alderantz. Erroa bakarra da eta erro-aldea koroa baino 2-3 mm inguru luzeagoa izaten da. Oro har erroaren silueta zuzen samarra izaten da, alde hurbilean nahiz urrunean, iduneko herenean apur bat ganbila izan badaiteke ere. Erroaren erpina kamutsa da gehienetan.

¹ Ik. Orban, 1962

² Koroa-erroko indizea: erroaren luzera zati koroaren altuera.



Erdiko goi ebakortz iraunkorra. Ezkerretik eskuinera ezpain aldeko, mihi aldeko, alde hurbileko eta urruneko ikuspegiak. 1. Ebakitze ertza. 2. Angelu ebakitze-hurbila. 3. Angelu ebakitze-urruna. 4. Ukigune hurbila. 5. Ukigune urruna. 6. Zingulua. 7. Mihi-hobia. 8. Bazter-gangar hurbila. 9. Bazter-gangar urruna. 10. Idun-lerroa.

Mihi-aldeko ikuspegia

Erro-aldea eta koroa estuago agertzen dira mihi-aldeetik ezpain-aldeetik baino. Koroaren zapaltasuna dela eta, mihi-aldeko eta ezpain-aldeko ikuspegiak oso antzekoak dira. **Idun-lerroa** ere ezpain-aldekoaren modukoa da, uztaitua alegia. Koroaren iduneko herenean, idun-lerroan bertan hasita, **gerrikoa edo zingulua** da agerian. Zinguluaren idun-aldeko mugarria idun-lerroa da, eta ebakitze-alderantz **mihi-hobia** du mugakide. Zingulua da hain zuzen janak mamurtzean behe ebakortzarekin bat egiten duen osagaia. Atxikitze-aldeetan **bazter-gangar hurbila eta urruna** aurkitzen dira, eta biek egiten dute bat zinguluaren albo banarekin. Bazter-gangar bien artean eta zingulua baino ebakitze-alderago kokatuta **mihi-hobia** kokatzen da, eta areago ebakitze-aldean **ebakitze-gangarra**. Beraz, mihi-hobia inguratuz zingulua, bazter-gangarrak eta ebakitze-gangarra ditugu, hobiaren idun-aldean, atxikitze-aldeetan eta ebakitze-aldean hurrenez hurren. Etnia batzuetan sarriago aurkitzen dira mihi-hobi sakona eta bazter-

gangar mardulak dituzten ebakortzak, **pala itxurako hortzak** alegia³. Batzuetan zingulutik mihi-hobira bitartean garapen-ildoren bat ere aurki daiteke.

Erdiko ebakortzetan aldakorra izaten da koroaren itxura eta esan ohi da gorpuzkeraren araberako hiru aldaki bereiz daitezkeela. Bada, koroa laukia omen da gorpuzkera atletikoa dutenengan, arrauzkara omen da leptosomikoengan eta hiruki antzekoa gizaki piknikoengan. Gerrikoa bakarra edo bitan banatua izan daiteke, edo gerta daiteke zinguluaren ordeztaz gangar mardul bi agertzea. Hau ez da harritzekoa, kontuan harturik zingulua bazter-gangarren bat egitetik sortzen dela.

Atxikitze-alde hurbileko ikuspegia

Ikuspegi honetatik hiruki itxura du koroak, iduna duela hirukiaren oinalde. Egitura hau ebakortz guztien bereiztasun bat da. Nabarmena da iduneko herenaren mihi-aldeko siluetari **zinguluak** ematen dion ganbiltasuna. Mihi-aldeko silueta berriz ahurra da gerrikitik ebakitzertzera bitartean, batez ere **mihi-hobiaren** eremuan. Zinguluaren siluetak galdu egiten du bere ahurtasun hori ebakitze-alderantz, eta ebakitze-gangarraren aldamenean ganbil bihurtzen da bat batean. **Ebakitze-ertza** erroko ardatzean kokatuta dago gutxi gora behera.

Idun-lerroa beste hortzagin guztietan baino areago uztaitzen da ebakitze-ertzerantz, batzuetan erdiko hereneraino uztaitu ere. Ezaugarri hau lagungarria da atxikitze-alde hurbila eta urruna elkarrengandik bereizteko, azken honetan idun-lerroa ez baita horrenbeste uztaitzen. Erro-aldearen silueta ganbila da alde hurbilean nahiz urrunean, eta erpina kamutsa edo biribil samarra izaten da.

Atxikitze-alde urruneko ikuspegia

Erdiko goi ebakortza oro har zapala denez gero, estua mihi-ezpain ardatzean alegia, atxikitze-alde urrunak hurbilaren itxura bera izaten du.


Ebakitze-aldeko ikuspegia

Koroak ezkutuan uzten du erro-alde osoa ikuspegi honetatik. Hiruki biribildu baten antza hartzen zaio koroari oro har, hirukiaren oinaldea hortzaren ezpain-aurpegian delarik. Koroa zabalagoa da hurbil-urrun ardatzean mihi-masaila ardatzean baino. Ebakitze-ertza doi bat okerra izaten da. Ikuspegi honetatik koroaren ezpain-aldeko silueta ganbil agertzen da koroaren erdiko herena apur bat irtena delako. Mihi-aldeko siluetaren lagin handiena **zinguluak** osatzen du. Ezpain-aldea mihi-aldea baino askoz zabalagoa da hurbil-urrun norabidean.

³ Brabant, 1967; Carbonelli, 1963; De Voto, 1971; De Voto *et al.*, 1968; Dahlberg, 1949; Hanihara, 1967; Snyder, 1960; Taylor, 1969.

Erro-aldea eta muin-aldea

Aipatu bezala erroa bakarra da, eta muin-kanal bakar bat dauka bere baitan. Muin-aldea oso estua da mihi-ezpain ardatzean. Koroaren iduneko herenean izaten da zabalena, eta estutu egiten da erpinera bitartean. Sarritan **muin-kanala** ez da erpinera irekitzen, erpineko hereneko punturen batean mihi-aldera edo ezpain-aldera baizik. Ondorioz erradiografiatan eman dezake muin-kanala izatez baino 1mm inguru laburragoa dela. **Koroa-barrunbea** zabala da hurbil-urrun ardatzean eta **muin-adarrak** sarri aurkitzen dira. Koroa-barrunbeak duen hiruki itxura agerian geratzen da iduneko herena zeharka ebakiz gero. Hala ere gizaki adintsuengan koroa-barrunbearen itxura biribilagoa izaten da.



Erdiko goi ebakortz iraunkorra. Ezkerretik eskuinera, ebakitze aldeko ikuspegia eta muin aldea. 1. Ebakitze-ertza. 6. Zingulua. 7. Mihi-hobia. 8. Bazter-gangar hurbila. 9. Bazter-gangar urruna. 11. Muin-adarrak. 12. Koroa-barrunbea. 13. Muin-kanala.